

• ASTERO GAIA •

Bagaudak

Krisia eta iraultza erromatar garaian

V mende erdialdean, Erromatar Inperioa azkenetan zenean, hainbat jende armatuk biolentziaz eraso zuten boterea: bagaudak. Historian zehar konflikto horren zergatia azaltzen saiatu dira, baskoiekin ere lotu izan dituzte, baina oraindik inork ez daki nor ziren eta zerk eragin zuen protesta sozial hura. Dakigun gauza bakarra da krisi eta nahasmen urteak zirela.

URKO APAOLAZA



Bagaudek Tarraconensiseko hainbat lekutan sarraski ugari eragin zituzten. Zaragoza eta Lleida hiri erromatarrek suntsitu eta Tarazonako apezpikua hil zuten. Ebro bailarako goialdean omen zuten jatorria talde horiek.

K.O. 408. URTEAN Sabiniano izeneko erromatar ordezkariak Honorio enperadorearen gutun bat ekarri zien Iruñean (Pompaelo) babesturik zeuden legionario britainiarrei. Enperadoreak guarnizioa animatzen zuen gutun horretan, eskatuz ez zezatela kanpoko erasoan aurrean etsi. Garai bertsuan, Didymo eta Veriniano anaia patrizio aberatsek ejertzito pribatuak antolatu zituzten, Pirinioaz hegoaldeko *servuliek*in, mendikateko pasabideak ahalik eta azkarren itxeko asmoz. Zer ari zen pasatzen, menderen mendetan ezagutu ez den Inperio distiratsuenak holako estutasuna agertzeko?

Europa ekialdeko eta iparraldeko *gentium barbarum* ugari erromatar probintzietan barrena ari ziren hedatzen eta Hispanian sartzeko zorian ziren. 409an Ataulfo buruzagi bisigodoak Akitaniako hiri nagusia zen Bordele erraustu zuen. Urte horretan, vandaloek, suevoek eta alanoek Pirinioak gainditu eta hortik aurrerako eremu guztiak masakratu zituzten, tartean ziren Iruñea, Hiriberri, Andelos... Inperioaren erorketaren urterik beltzenak dira –Erroma 410. urtean hartu zuten bisigodoek–, baina krisia sakonagoa da, luzeagoa agonia.

Izan ere, arriskua ez zetorren soilik kanpotik, Inperio barruko habeak ere pitzatzen ari ziren. Horrela, hurrengo urteetan segurtasun falta, zorrak, inflazioa, lapurretak ugaritu ziren. Mendebaldeko mundu klasiko osoa kili-kolo zen, bai Erroman eta baita Ebroko bazter honetan ere. Desegonkortasun horri loturik daude tierra hauetan ezagutzen diren lehenengo matxinoak: bagaudak.

Hidacioren kronika

Bere sonoritateagatik-edo, norbaitek pentsatzen badu “bagauda” hitza euskal errokoa dela, oso oker dago. Teoria batek dio zeltiarrezko *bagud* hitzaren eratorria dela eta “basoko batzarra” edo “oihaneko jendea” esan nahi omen du. Bagauden lehenengo berriak K.o. III. mendekoak dira; Galiako Armorican –gaur

Badirudi Ebroko bagauden matxinadan parte hartu zutela prototipo ezberdineko jendeek: esklabo iheslariak, lurra galdutako kolonoak, nekazari pobretuak, baskoi “egonezinak”....

Nafarroako Mendigorrian zegoen Andelos hiriko arrastoak. Murru zaharberritu hauek Antzinaroko urtegi bati dagokie. Herri “barbaroek” Andelos eraso zuten V. mende hasieran.

egungo Britainia– izandako matxinada batzuk identifikatzeko erabili zen hitz hori. Ondoren, V. mendean, bagauden atakeak Galian ez ezik, Hispaniako Tarraconensisen ere gertatu ziren –Ebroko arro guztia hartzen zuen probintzia horrek–.


Hidacio apezpiku hispaniarrak *Chronicon* izeneko obran idatzi zuen hemen inguruko bagaudei buruz, K.o. 460 inguruan. Apezpikua izateaz gain historialaria ere bazen, eta bere lanean suevoen etorrera irudikatu zuen ilunpearen etorrera balitz bezala, “azken juzizio” moduko bat. Izan ere, Hidacio erromatar *possessoreen* ordezkaria zen eta barbaroak begitan zituen. Bere kronikan bagaudez diotena gutxi da, oso gutxi... Hain gutxi, ezen

bizpahiru esaldi besterik ez diren. Nola liteke, horrela, matxinada oso baten historia berreskuratzea? Hori da bagauda errebolitariak inguratzen dituen misterioaren arrazoietakoa bat: ezezagutza. Baina historialariek lerro artean irakurtzen badakite eta isiltasunak interpretatzen.

Hara zer dioten Hidaciok, lehenik, antzinako jende ezezagun horietaz: “...*Asturius, dux utriusque militiae, ad Hispanias missus, Tarraconensium caedit multitudinem Bacaudarum...*”. Alegia, Asturius jeneralak bagauda ugari sator artera bidali zituela Tarraconensisen. 442an gertatu zen hori eta hamahiru urteren buruan beste hainbat istilu jazo zen bagauden eskutik. 443an Araceli izeneko hiri ustez baskoia aipatzen du Hidaciok. Dioenez, Asturius general erromatarraren suhiak, Merobaudes izeneko “poetak”, bertako *insolentiam bacaudarum*-ak zapaldu zituen.

Baina dena ez zen porrota izan bagaudentzat. 449an errebolitariak sekulakoak eta bigin zituzten Ebro haran osoan. Basilio izeneko bagauden buruak azala erakutsi zuen Turiaso *civitas* parean (Tarazona). Hiriko elizan zeuden soldadu godo federatuei gibelak atera ondoren bertako León apezpikua ere hil herioan utzi zuten. Ondoren, barrabaske-riak egiten segitu zuten Ebron behera suevoen errege Rechiario batu zitzaian gaine-





Europako ekialdeko eta iparraldeko herriek Erromatar Inperioko mugak gainditu zituzten V. mende hasieran (goiko mapa). Bisigodoak, sueboak eta bandaloak izan ziren gehien mugitu zirenak. Herri asko Inperioaren egiturak barneratu ziren, baina tentsio gero eta handiagoaren eta barne krisi ekonomiko-politikoaren ondorioz, Erromak azken hatsa eman zuen mendea amaitzerako. Deskontentu orokor horretan bagauden erasoaldiak izan ziren Galiako Armorican eta Hispaniako Tarraconensisen, Ebro inguruan (eskuineko mapa).




ra. Zaragoza inguruan hamaika triskantza egin eta gero, Ilerdan (Lleida) sartu ziren etsaiaren deskuidua aprobetxatuz: “...*Irrupta per dolum Ilerdensi urbe...*” dio Hidaciok. Ilerda zen probintzia hartako hiri estrategiko eta zaharretakoa, iberoen kontrako borrokatik oso ezaguna erromatarren artean. Hiria arpilatu eta bertako herritarrak atxilo hartzean, matxinoek denen bistan utzi zuten hura ez zela soilik lapur edo *pauperes* batzuen kontua, nahiz eta suevoen laguntza izan. Agian, horregatik, Erromak serioskiago hartu zuen bagauden hurrengo altxaldia, K.o. 454koa. Theodorico II.a bisigodo aliatuari laguntza eskatu zion eta honen anaia Fredericok bagaudak borratu omen zituen, sekula betiko, Erromako Inperiotik.

Mitoa: kristau heroiak eta proletarioak

Horraino gertaerak. Baina hortik aurrera... Zein ziren bagauda horiek? Antzinako ban-

doleroak? *Sin Tierradunak*? Lehen gerrillari karlistak? Beren legenda bizirik atera zen Erdi Aroko lehen mende ospeletatik, baina ez lapur basatiak bezala, “kristau heroi” gisa baizik. Ziaboga hori iturri klasikoen interpretazio berezi batetik dator. Izan ere, nola esplikatu daiteke, kristauak izanik, Tarazonako León apezpikua hiltzea? Erraza: bagoaudi errua kendu eta krimena godoena zela esanez. Horixe egin zuen Isidoro Sevillakoak –VII. mendeko eruditu ezaguna– Hidacioren kronika berrikusi zuenean. Horrela, eliz-iturrietan, ahozko tradizioan eta baita etimologian ere, galia eta hispaniako bagaudak umant fededunak izango dira.

Ikuskera horrek XIX. mendera arte iraun zuen, *ismo* ideologiko modernoek antzinako “iraultzaile” bagauden historia bereganatu zuten arte. Frantziarrek lehen nazionalistatzat jo zituzten bagaudak, eta



hastapeneko sozialistak ere haiek erakarrita sentitu ziren. J. M. Benoit Lyongo langileen liderrak, esaterako, *insurrection du prolétariat* deitu zuen bagauden matxinada. Émile Zola idazle handiak ere bagaudez idatzi zuen *La tierra* (1887) eleberrian. Nekazarien historia petrala kontatzen du Zolak liburu horretan eta zapalduen artean sartzen ditu antzinako gure matxinoak: artzainen artean, oinutsik doazenen artean, *croquants* edo behartsuen artean... Naturalista frantziarra, hala ere, ez zen gehiegi "busti" lan horrekin, ez *Germinal*-ekin bezain beste behintzat. Beraz, ezin esan bagaudak sozialistatzat ote zituen edo ez. Hurrengo urteetan, "sozialismo errearen" garaietan, bagaudek marxisten begiramena izan zuten. 1952an idatzitako artikulu batean, E. A. Thompson-ek dio bagaudak iraultzaileak zirela eta terratenienterik gabeko estatu errudimentarioa sortu nahi zutela.

Baskoiak ote?

Bagauden kontu honek nahikoa informazio eskasa du eztabaida ideologikoak elikatzeke. 1961ean Italiako Spoleto hirian sesio itzela izan omen zuten Mazziano eta Claudio Sanchez Albornoz historialariek. Lehenengoak Tarraconensiseko bagaudak anarkismoarekin lotzen zituen, bigarrenak euskaldun edo baskoiekin. Sanchez Albornozen iritziz bagauden matxinadak hurrengo mendeetan baskoiek bisigodoekin eduki behar zituzten saltsa famatuen aurrekari bat besterik ez ziren. Funtsean, "euskal arazoa"ren bertsio klasikoa litzateke.

Akademiko espainiarraren tesi "independentista" beste hainbat ikerlek ere defendatu izan dute gutxi gehiago. Koldo Larrañaga Antzinaroko ikerlariak, esaterako, ñabardura askorekin bada ere, bas-

koi-entzala ikusi zuen V. mendeko bagauden gertaera horietan.

Ezin ukatu daiteke bagauden notiziak Ptolomeok deskribatutako baskoien lurraldean agertzen direla. Adibidez, bagauda *Aracellitanorum* batzuk aipatzen ditu Hidaciok. Badira izen horren erroa eraman dezaketen bi toki Ebro inguruan: lehenengo Uharte-Arakil litzateke eta bigarrena Corella ondoko Araciel izeneko herri abandonatua.

Uharte-Arakiletik erromatar galtzada garrantzitsua pasatzen zen; Araciel herrixkan, berriz, erromatar aztarnak aurkitu zituzte. Biak hala biak baskoien lurraldean daude.

Dena dela, hipotesi horrek indarra galdu du azken urteetan, batez ere hainbat aurkikuntzekin –Oiassoko portuko aztarnak, besteak beste–, euskal *saltus* basati erromanizatu gabearen topikoa hankaz gora jarri baita. 80etako hamarkadatik hainbat idazlek (J.J. Sayas, J. Sanchez Leon, G. Bravo...) bagauden problematika berrirakurri dute eta uste baino mugimendu sozial konplexuagoa izan zela ondorioztatu.

Orduan, zein ziren bagaudak?

Fugitivi, agrestes, latrocinatum, insolentia... adjektibo gordinak jarri zizkieten erromatarrek bagaudei, delinkuentziarekin lotuz betiere. Baina badirudi Ebroko bagauden matxinadan parte hartu zutela prototipo zeharo ezberdineko jendeak: esklabo iheslariak batzuk, lurrik gabe geratutako kolonoak besteak, *libertoak*, nekazari pobretuak, baskoi "egonezinak"...

Zerk bultzatu zituen bagaudak Erromatar agintea biolentzia horrekin erasotzera? Testuingurua garrantzitsua da. Herri "barbaroen" etorrerak ezustean harrapatu



Antzinaroko lantzak. Erromatarrek indarra erabili zuten bagauden matxinadak zapaltzeko.

K.o. 454an Erromak laguntza eskatu zion Theodorico II.a bisigodoari, eta honen anaia Fredericok bagaudak borraratu omen zituen, sekula betiko, Erromako Inperiotik

Bagauden ondoren

Erromatar Inperioaren “erorketa” esplikatzeko hainbat teoria azaldu izan dira denboretan zehar. Batzuen ustez, zibilizazio oro bezala, Erromak azkeneko mendeetan gainbehera egin zuen, nola lorea ihartzen den. Bestetik, badaude diotenak bat-bateko suntsiketa izan zela hura, nola gehiegi puztutako burbuila lehertzen den. Bukatzeko, trantsizio modu bat egon zela defendatzen dutenak daude. Hau da, erromatarrak ez zirela erabat joan. Izan ere, haien bidez zabaldutako kulturak gaur arte iraun duela esan liteke: arkitekturak, hizkuntzak, hiri ereduak... “Mendebaldea” bezala ezagutzen duguna, azken finean.

Euskal Herriari dagokionean, bagauden matxinadak eta gero, Tolosako bisigodoek Pirinioak gurutzatu eta erreinua sortu zuten. Baskoiek botere berriaren kontra egin zuten arren, badirudi hauen eredu germaniarra kopiatu zutela –Arabako Aldaietan aurkitutako aztarnak dira horren testigu– eta atzean utzi zutela, landa eremuan behinik behin, latinizazio prozesua. Aldiz, ematen du Iruñean erromatar tradizioak jarraitu zuela eta apezpikua zela bertako Elizaren eta agintearen buru.

zuen erromatar aristokrazia eta horrek botere hutsune arriskutsua ekarri zuen. Bestalde, krisi ekonomiko larria jasaten ari zen Inperio osoa; nekazarien gaineko presio fiskala handitu egin zen, hirietako merkatuak hustu... Funtsean, des-hiritartze prozesua –Euskal Herriko *civitas* erromatarren artean Iruñeak soilik iraun zuen zutik– eta esklabotza sistemen desegitea gertatu zen. Feudalismoaren bidean ziren. Adituen ustez koktel horrek guztiak ekarri zuen bagauden matxinada.

Salviano izeneko idazle eta fraile galoa 426. urtean iritsi zen Marseilara eta *Mare Nostrumeko* hiri hartatik idatzi zuen Inperioaren gainbeheraz; holaxe deskribatu zituen Hispania eta Galiako bagaudak: “Erromatar ugari godoetara, bagaudetara eta beste barbaro batzuetara pasa dira, eremu zabalak menperatuz, eta egiatan ez dira horretaz damutzen, zeren eta nahiago dute libre bizi esklabotza itxura baten azpian, esklabo izatea baino, libertate itxurapean”. Beraz, Salvianoaren esanetan pobreek ezinbestean irauteko ematen zuten izena bagaudetan. Zentzu horretan, nola ulertu dezakegu bagauden fenomenoak? Behe Inperioko korrupzioaren, botere borrokan eta ekonomia desegitearen uzta litzateke.

Besterik da jakitea “talde” izaera ote zuten eta iraultzaren hazirik ote zegoen haien erraietan. Segurtzat jotzen den gauza bakarra da Erromak aspaldi utzi ziola “betiko” izateari –ahazturik zeuden Augustoren eta Trajanoren garaiak–, erromatar administrazioak kiebra jo zuela eta katarsi egoera etsigarrian aurkitzen zela Mendebaldeko Inperio erraldoia. ■

Euskal Museoa





Miguel de Unamuno plaza 4,
48005 BILBO, Tel.: 94 415 5423
e-posta: museoa@euskal-museoa.org
www.euskal-museoa.org